

EUSKARAREN Berripapera

sumarioa

- 1 • Biztanleriaren hizkuntza-gaitasuna
- 2 • Balendiñe Albizu • Laburrak: Bizkaiko Ingeñarien Kultur Batzordea EKE-ren batzar nagusia
- 3 • Euskararen irakaskuntza eta teknologia berriak • Agenda: Mendebalde Elkartearen jardunaldiak • Lan mundua euskalduntzeko saioak
- 4 • Hitzarmena: Euskaltzaindia-Eudel • Eremu Urriko Hizkuntzen Nazioarteko VII Biltzarra • Gaztetxulo: Gazteen Irutxulo

EUSKAL HERRIKO BIZTANLERIAREN HIZKUNTZA-GAITASUNA

Euskal Herriko II. Soziolinguistikazko Inkestaren emaitza orokorrak 1997. urtean argitaratu ziren; orduko argitalpenean, hiru lurraldeei buruzko datuak batera kaleratu ziren.

Oraindik orain, berriz, lurralde bakoitzari - Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Iparraldea- liburuxka eskaini zaio, eta horiekin batera, Euskal Herriko liburuxka ere berrargitaratu da, emaitza guztien bilduma egitearren.

Lurraldekako liburuxka bakoitza bost ataletan egituratu da:


1. Hizkuntza-gaitasuna
2. Hizkuntzaren transmisioa
3. Nortasuna, jarrera eta iritziak
4. Euskararen erabilera
5. Ondorioak

Hizkuntza-gaitasunaz ari izango gara honako honetan.

Euskal Autonomia Erkidegoa

Euskal Autonomia Erkidegoan, lau biztanletik bat (%24,7) elebiduna da, seitik bat (%16,3) elebidun hartzailea, eta erdia baino gehiago (%58,5) erdaldun elebakarra.

Hizkuntza-gaitasuna desberdina da lurralde batetik bestera: Araban eta Bizkaian erdaldun elebakarrak gehiengo nabarmena dira (%77,6 eta %63,5 hurrenez hurren). Gipuzkoan, aldiz, elebidunak (%43,2), erdaldun elebakarrak baino gehixeko dira (%42,1).



Nafarroa


Nafarren artean hamarretik bat (%9,4) elebiduna da, hamarretik beste bat (%9,8) elebidun hartzailea, eta gainontzeko gehiengoa (%80,6) erdaldun elebakarra. Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, eremu linguistikoko euskaldunak ezaugarri oso bere-

ziak ditu Nafarroako gainerako tokien aldean.

Eremu euskaldunean, biztanleriaren erdia baino gehiago (%57,6) elebiduna da, eta gutxiengo bat (%2,3) euskaldun elebakarra. Elebidun hartzaileak %7,4 dira eta erdaldun elebakarrak herena (%32,7).

Eremu mistoan, ordea, biztanle gehienak (%81,6) erdaldun elebakarrak dira. Elebidun hartzaileen portzentaia %13koa da, eta elebidunena %5,4koa besterik ez.


Eremu ez-euskaldunean, ia biztanleria osoa (%93,2) erdaldun elebakarra da. Elebidun hartzaileen portzentaia adierazgarria da (%6) eta ia ez dago elebidunik (%0,8).



Iparraldea

Iparraldeko biztanle guztien arteko lautik bat (%25,7) elebiduna da, hamarretik bat (%9,3) elebidun hartzailea, eta hirutik bi (%64,2) erdaldun elebakarra.

Hizkuntza-gaitasuna ezberdina da zonalde batetik bestera: Baiona-Angelu-Miarritze (BAM) zonaldeko biztanle gehienak (%87) eta Lapurdiko barnealdekoen erdia baino gehiago (%55) erdaldun elebakarrak dira. Nafarroa Beherean eta Zuberoan, aldiz, gehiengoa (%61,4) elebiduna da.



laburrak

BIZKAIKO INGENIARIEN KULTUR BATZORDEA

Bizkaiko Ingeñariaren Eskolako Elkargo Ofizialak euskal kultur batzordea abiarazi zuen 1976an. Batzordearen asmoa izan da euskaraz ikasteko aukera eskaintzea ikasleei. Egun, adibidez, 4.000 ikasle inguru dira Bilboko Goi Mailako Ingeñariaren Eskolan eta horietarik %17 euskaraz ari dira ikasten. Beren ikasketak burura emateko, berriz, proiektua egin behar izaten dute ingeniartzatza ikasleek eta urtero hamar-hamabost proiektu aurkezten dira euskaraz. Ingeñariaren Elkargoko kultur batzordeak euskarazko ikasketak eta proiektuak bultzatu ohi ditu. Gainera, euskarazko idazlan saria eta hitzaldiak eratzen ditu urtero. Egin izan diren hitzaldi-zerrenda luzean ageri dira, besteak beste, ondokoak: "Adimen artifiziala", Iñaki Goirizelaiaren hitzaldia; "Industri hondakinen minimizaziorako eta kudeaketarako Urdaibai plana", Antton Azkonarena, edo "XXI. mendeko paradigma berria", Juanjo Gabiñak eskainitako saioa.

EKEren BATZAR NAGUSIA

Euskal Kultur Erakundeak urteko biltzar nagusia egin zuen orain hilabetetsu Izpuran. Besteak beste, Hizkuntz Kontseilua Uztaritzeko erakundearen baitan sortzeko proposamena eztabaidatu zuten biltzarkideek. Biltzar nagusiak, printzipiozko akordioa onartu zuen Hizkuntz Kontseilua eratzeko. Erabakitakoaren arabera, behin-behineko egitura sortuko da Kultur Erakundearen barruan, hizkuntza-politika zuzentzeko Ipar Euskal Herrian.

Gai minena hori izanagatik ere, erakundeak funtsezkotzat jo zuen geroari

BALENDIÑE ALBIZU

Gerra-garaiko belaunaldiaren eredu

Olerkaria, Zumaian sortu zen 1914an. Gerra ondoren Hego Ameriketara bizi izan zen, erbesteraturik. Euskaltzaleatasunaren eta abertzaleatasunaren alde lan handia egin zuen. Bere olerkien gai nagusiak abertzaleatasuna eta maitasuna dira. Julio Beobidek amets zuen euskal emakumearen eredu izan zen Balendiñe Albizu eta hainbat taila egin zizkion eskulturgileak gaztetan. Arteak arteari deituko balio bezala, poemak zizelkatu zituen Balendiñe Albizuk, askotan "sukaldean, baratzuri eta tipula

usain artean". Maitasunaren gazi-gozoei inolako muzinik egin gabe, bihotza erdibiturik bizi izan da Euskal Herriaren eta Venezuelaren artean. Izan ere, erbestearekin ordaindu zuen gaztetandiko abertzaleatasuna. *Gernika sutan* izan zen bere lehen poema, hurbiletik jasan baitzuen Gernikako bonbardaketa. Gerra-garaiko belaunaldiaren eredu, irmotasunik galdu gabe, sentiberatasun handia dario emakume ausart eta aurrerakoiari. Jaioterrian bizi da egun Balendiñe Albizu, Zumaian.



ALBIZUNEKO BALENDIÑE

NERE OLERKI TXORTA



buruzko gogoeta sakoena bultzatzea, hamar urte beteko baititu 2.000. urtean. Gogoeta hori azaroaren 7 eta 8an egingo da, EKEk antolatuko dituen topaketetan. Erakundeak, bestalde, sorkuntza artistikoa lagunduko du aurtan, iaz bezala, eta "Euskal izpiritua" komedia musikala eta "Hautsi da kristala", Mattin Hirigoienaren antzerki berria lagunduko ditu, besteak beste. Gainerakoan, antzerki, kantu, irakurketa eta dantza tailerrak bultzatuko ditu eskola munduan. Informazio-aldizkariari eutsiko dio, eta bere berriak Internet sarean agertzen jarraikiko.

Iazkoari dagokionez, EKEk 31 elkarteren lana eta 90 bat ekitaldi lagundu zituen, teknikoki batzuk, ekonomikoki bestetzuk.

EUSKARAREN IRAKASKUNTZA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

Aurkeztu dituzte XVIII. Uda Ikastaroak. Donostiako Miramar jauregian egingo dira, ohi denez, ekainetik irailera bitarte. Taratean, euskararen irakaskuntza eta teknologia berriak izeneko ikastaroa izango da uztailaren 8, 9 eta 10ean. Helburua, euskararen irakaskuntza berrikuntza eraginkortasunez sustatzea. Aztertu diren gaien artean dira, adibidez, gaurko euskara-ikasleen eskakizunak, hizkuntzen irakaskuntza teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak, irakaskuntza ikaslearengan ardazteak dakartzan ondorioak, helduentzako hizkuntza-irakaskuntzaren arloan teknologia berrien inguruko esperientziak, eta teknologia berriek irakaskuntzaren antolaketan izan dezaketan eragina.

Euskal Herriko Unibertsitatea da ikastaroaren antolatzaile HABEren lankidetzaz.

agenda.....

MEDEBALDE KULTUR ELKARTEAREN JARDUNALDIAK

Jardunaldiak prestatu ditu Mendebalde Elkarreak maiatzerako. Helburua beti ere, bizkaierak euskara batuari eskaini liezaiokeen ondarea ikertzea eta bultzatzea. Aurtengo bilerak Bilbon izango dira eta "Euskalkien lekua literaturan" dute izenburu. Maiatzaren 14an egingo da lehenengo saioa eta "Atzorik gaurrera: iturriak" lemapean Adolfo Arejita, Luis Baraiazarra, Andres Urrutia, Andolin Eguzkitza eta Xabier Kalzakorta ariko dira. Maiatzaren 15ean, berriz, "Mendebaldeko idazlearen praxia" gai harturik mintzatuko dira Xabier Amuriza, Miren Meabe, Lurdes Unzueta eta Ana Urkiza. Mahai ingurua ere izango da Iñigo Aranbarri, Edorta Jimenez, Aingeru Epalza eta Itxaru Bordarekin. Jardunaldien amaiera ekitaldian, bestalde, omenaldia eskainiko zaio Pedro Irizarri, euskararen alde egin duen lan handia eskertuz.

Uztailaren 8a

Sarrera ekitaldia. Josune Ariztondo.

- "Teknologiaren papera ikaslearengan ardaztutako irakaskuntza/ irakaskuntza eta ikasguneak sustatzeko". David G. Little.
- "Ikaskuntzaren ingurune berria: teleikaskuntzako osagaien antolatzaile, sare telematikoen bidez". Juan Jose Goñi.
- "Telematikaren erabilpena atzerriko hizkuntzak ikasteko eta irakasten ikasteko". Josune Gereka, Ander Iturburu, Jose Luis Maraño.
- "Komunikazioaren hobekuntza euskalduntze-alfabetatzean". Jokin Azkue.
- "Tutoretza ikaskuntza: sistema automatikoen eta gizakien bidezko tutoretza mistoa euskararen ikaskuntza". Andoni Unzueta, Iñaki Mokoroa.

Uztailaren 9a

- "Ikaslearen autonomia eta autoikaskuntza: kasu baten azterketa". David G. Little.
- "Autoikaskuntza-zentroak, Katalunian hizkuntza ikasteko beste baliabide bat". Montserrat Gimeno.
- "Gela irekia: Santurtziko udal-euskaltegiaren autoikaskuntza-zerbitzua". Jose Miguel Arnaiz.
- "OLC -Open Learning Centre- Ikastegi irekia: kasu baten azterketa ikaslearengan ardazturiko irakaskuntza alternatiboa multimedia eta abarren bidez". James F. Rudy.
- "Bai & by: multimedia adimenduna". Laurentzi Zubiri.

Uztailaren 10a

- "Ostadar proiektua: inprimategiko, ikusentzunezko eta softwareko euskarrien arteko uztarketa". Mikele Aldasoro, Jabier Larrañaga, Iñaki Lekuona.
- "Teknologia berriak, auzi zaharrak: konponbide berriak? Urrezko arauak praktikari begira". James F. Rudy.
- "IT's aldizkari birtualak". Robert Campbell.
- "Ingelesaren irakaskuntza profesionalentzako. Bananbanako irakaskuntza talde-programetan". John Bradley.
- "Tandem-a eta hizkuntzaren urruneko irakaskuntza: e-mail eta MOOen erabilera". David G. Little

LAN MUNDUA EUSKALDUNTZEKO PLANAK

Hiru ekitaldi prestatu dituzte Industrien Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuak eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak enpresetan euskararen erabilera areagotzeko. "Euskara planak: enpresen hizkuntza-kudeaketarako erremintak" izenburupean, ikastaro eta jardunaldiak egingo dira.

Lehenengo saioa, apirilean burutu zen. Ikastaro-mintegia izan zen eta euskara planak nola prestatu eta garatu aztertu zen planok kudeatzen ari diren zerbitzu-enpresetako teknikariekien batera. Saioaren helburua izan zen euskara-planek behar duten espezializazio maila lortzea.

Bigarrena, egun bateko jardunaldia, maiatzaren hasieran burutu zen eta etorkizunean euskara-planen kudeatzaile izan litezkeen enpresei zuzendurik egon zen. Plan horien nondik norako nagusiak azaltzea

izan zuen helburu.

Hirugarren saioa, azkenik, maiatzaren 12an Zamudioko Parke Teknologikoan burutu, enpresari eta lan-munduarekin harremanetan ari diren ordezkarientzako jardunaldi irekia izan zen. Azken hamarkadan izan diren esperientziak azaltzeko eta etorkizunari buruzko hausnarketa egiteko ekintza proposa izan zen.

Hiru ekitaldiok antolaturik, Industrien Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuak eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak euskara lan munduan hartzen ari den indarrari behar bezala eutsi nahi diote. Horretarako, giza baliabideak behar dira, batetik, eta euskararen eza-gutzak eta erabilera enpresaren jardunari egiten dizkioten onurez enpresariak ohartaraztea, bestetik.

Eremu Urriko Hizkuntzen Biltzarra

Eremu Urriko Hizkuntzei buruzko VII. Nazioarteko Biltzarra egingo da 1999ko abenduaren 1etik 3ra. Bilbon izango da, Euskalduna Jauregian. Mundu mailan hizkuntza biziberritzeko egiten diren saioak aztertuko dira biltzarrean. Eredu teorikoak aztertuko dira, batetik, eta Europako eta munduko esperientzien berri emango da, bestetik.

Aurreko biltzarra Gdansk-en (Polonia) antolatu zen eta hantxe hartu zuen Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailordetzak biltzarra antolatzeko konpromisoa. Hurrengo aleetan jakinaraziko ditugu Biltzarrari buruzko berri gehiago.

Hitzarmena: Euskaltzaindia-Eudel



Hitzarmena sinatu dute Euskaltzaindiak eta Euskadiko Udalen Elkarateak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri, auzo eta kaleen izenen normalizaziorako.

1986an Euskaltzaindiak Erkidegoko udalerrien izenen zerrenda egin zuen (Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-entitateen Izendegia) eta, guztira, 1.225 biztanle-entitatearen izenak bildu zituzten bertan.

1994an Hizkuntza Politikarako Sailordetzak beste zerrenda bat prestatu zuen, osatuagoa. Ondorioz, 1.368 izenez osatutako zerrenda burutu zen.

Denbora ere joan da eta zerrendak aztertu, zuzendu eta eguneratzeko aldia da orain.

Hitzarmenaren helburua da datu-basea egitea. Datu-base hori Hizkuntza Politikarako Sailordetzak EAeko toponimia normalizatzeko garaturik duen datu-basean txertatuko da. Horretarako, dena den, Euskaltzaindiak toponimiari buruz egin dituen lanen inbentarioa egingo da lehenengo. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-entitateen Izendegia argitalpena aztertu, zuzendu, bateratu eta eguneratuko da. Hori ez ezik, kale-izendegietan agertzen diren arazo nagusiak identifikatu, aztertu eta irtenbideak eskainiko dira. Azkenik, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak duen datutegian toponimoen normalizaziorako proposamena egiteko erabili diren hizkuntza-irizpideak aztertuko dituzte.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 18 80 98
e-posta: M-Meaurio@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

GAZTETXULO: IRUTXULO GAZTEENTZAT



Donostiako Bagera elkarteak Irutxulo aldizkariaren gazteentzako gehigarria kaleratzen hasi da, hileroko, hileko bigarren ostiralarekin batera. Gaztetxulo du izen eta askotariko gaiak lantzen dituzte bertan. Tartean, musika, zinema, euskara... Ander Usabiaga ageri da aldizkariaren erredaktore eta eskarmentu handiko kolaboratzaileak ditu: Koldo Almandoz, Harkaitz Cano, Xabier Montoia eta Iñaki Lazkano, adibidez. Drag queens, Anorexia eta Bulimia, New Yorketik igorritako kronika, testa eta beste hainbat eta hainbat gai jorratu zituzten lehenengo alean, beren gogo eta asmoak era ikusgarrian adieraziz. Kolorez bizi-bizi, arin eta indarrez dator Gaztetxulo.

